L.G.: SS-0197/03

# zer ote?

*Zizurkilgo aisialdirako gida*

## kirol astea












Zizurkilgo Euskara biziberritze plana 2005-2008

ZIZURKILGO UDALA

kultura | euskara | kirola gazteria | hezkuntza

zibotean euskara mugaleen

www.zizurkil.com
Aurrera Plaza 3, 20159 ZIZURKIL • 943 692495

abendua 2008 65. zenbakia NEGUA

Informazio gehiago
Aurrera Plazako
Udal Bulegoetan.
**943 692495**

Teodoro Hernandorena
Ipuin Lehiaketa





## Egutegien banaketa

**Aben. 1** Udalak egindako 2009. urterako EGUTEGIAK abenduaren 1etik aurrera banatuko dira Udaletxe eta Aurrera Plazako Udal Bulegoetan herritarren artean. Zatoz zure alearen bila!

## Kirola





**Aben. 9** Felix Baltistan Fundazioaren argazki erakusketaren inaugurazioa 19:00etan Atxulondo Kultur Etxean.

**Aben. 11** Josune Bereziartuk BIDE BERRIAK. ILUSIO BERRIAK ikus ñentzunekoa eskainiko du Atxulondo Kultur Etxean 19:30ean.

**Aben. 12** Felix Baltistan Fundazioko ordezkariek beraien proiektuaren inguruko hitzaldia eskainiko dute 19:30ean Atxulondo Kultur Etxean eta, ondoren, ZIZURKILGO KIROLARIEI OMENALDIA: Maitane Aburuza, Nerea Amilibia, Aitziber Ibarbia, Iñaki Urkola, Jon eta Igor Sasiain, Teddy Martinez, Ekaitz Kortajarena, Tamara Lozano, Ander Altuna, Andoni Usandizaga eta Imanol Arruti.

**Aben. 13** **HAMABI ORDUZ KIROLEAN ZIZURKILEN:**
16:00-18:00: Haurrentzat ginkana Otañoko frontoian eta, ondoren, merienda eta opari banaketa.
18:00: **JON TECEDORRI OMENALDIA** Intxaur Frontoian:
22:30: **ZIZURKILGO XII. GAU KROSA:** Aurretiaz orrian egindako izen emateak DOAN eta egunean bertan 21:30etik aurrera 5 euro.

**Aben. 14** **ERREMONTE** partidak Intxaur frontoian 12:00etan:
•Lehenengo partida: Etxabe II - Zubizarreta / Ibarzabal - Baleztena • Bigarren partida: Zeberio II - Aizpurua II / Uterga - San Migel.

## Kultura Liburuaren astea



**Aben. 15** **ERIZ MAGOA** Iriarte Etxean 18'00etan.

**Aben. 17** LEIRE ZUBELDIA zizurkildarrak idatzitako ATXULONDOKO AZKEN OLAGIZONA ipuinaren aurkezpena 18í00etan Atxulondo Kultur Etxean. VIRGINIA IMAZEK ipuina kontatuko die bertara hurbiltzen diren haur guztiei.

**Aben. 19** **TEODORO HERNANDORENA VII. IPUIN LEHIAKETAKO SARI BANAKETA** 17:30ean eta, ondoren, MADE IN JABON emanaldia: musika, umorea, magia eta xaboi burbuila erraldoiak. Zatoz!

## Loatzo Musika Eskola

**Aben. 16** **LOATZO MUSIKA ESKOLAREN Eguberrietako kontzertua 18:00etan Arantzazuko Amaren Elizan.**

## Olentzero



**Aben. 24** San Millan Ikastetxeko umeak baserrietan abestuko dute eta Pedro Mª Otaño eta Jesusen Bihotza Ikastolako umeek Elbarrena auzoa alaituko dute. Ondoren, Urkamendi Elkartean hamaiketakoa.

## KZ gunea

Tutoritzak abenduaren 10ean 9:00tatik 11:00etara.

## Euskara

**GABONETAN JOLASEAN:** Abenduaren 22, 23, 26, 29 eta 30 eta urtarrilaren 2 eta 5, 1996-2004 urte bitartean jaiotako haurrentzat, goizeko 9:30etik 13:00etara. Izen emateak abenduaren 15a baino lehenago Udal Bulegoetan, 10 euroko ordainketa eginez (tel.: 943-692495). Pasai Donibaneko irtenaldira joango direnek 5 euro gehiago ordaindu beharko dituzte. Programa:
•2008-12-22: GABONETAN JOLASEAN Udaleku irekien hasiera Pedro Mª Otaño Ikastetxean.
•2008-12-29: Pasai Donibaneko ONTZIOLA-ITSASONTZI TRADIZIONALEN IKERKETA ETA ERAIKUNTZA ZENTRORA irteera.

## Gazteria



**Aben. 18** **BIGARREN ESKUKO JOSTAILUEN GABONETAKO AZOKA ETA TXOKOLATADA:**
Abenduaren 18an Pasus Plazan 16'30etik 19'30era.

**Aben. 23** **TXURI URDINERA IRTEERA:** Abenduaren 23an LH 5 eta 6ko gaztetxoentzat. RENFEko geltokian 15:15ean (20:30erako bueltatuko dira Zizurkilera). Gaztetxo bakoitzak 2 euro eta gurasoen baimena eraman beharko du. Izenemateak: Zizurkilgo Udal Bulegoetan edo kale hezitzaileen bulegoan (astearte, ostegun eta ostiraletan 16:30etik 19:30era) abenduaren 19a baino lehenago.

## Bestelakoak



**Aben. 20** **TXISTORRA JATEA**, Elizpe Jubilatu Elkartearen antolakuntzapean, 18:00etan.

**Aben. 31** **URTE ZAHARREKO LASTERKETA.** Antolatzaileak: Urkamendi eta Zunbeltz Elkarteak. Irteera eta helmuga Urkamendin.